

Feli Etxeberria Galarza

*Amezketako
Gipuzkoa
(1926)*

Aurkibidea

Biografia



Amezketako Letradunea kaleko etxean jaioa. Taberna zuten bere gurasoek, bere aitonarengandik jaso. Domingo zuen izena aitonak, eta bere etxe eta tabernari "Domingoenea" deitu izan zaio. Gerra garaiko tentsioez hitz egin digu, eta baita orduko baserritarren eta kaletarren arteko harremanez ere.

Zintak

AME-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-04
- **Iraupena:** 105 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria Zarautz, Lurdex

Pasarteak

1. Milizianoak Amezketara gerra hasieran

- **Erref:** AME-002/003
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:02:42. **Bukatu:** 00:04:01

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasi zenean, ez zekiten zer zen. Milizianoak kotxez iritsi ziren eta ikara pasa zuten. Alegian zeukaten basea.

Transkripzioa

- Nik aurrena galdetuko dizkizuet... ze ya ke ta zuek izango zeaten hemen e... Atzo adibidez eon nitzanak mila beatzirehun ta hoitamaseien hoitamazazpi jayuak... E zuek gerra ondorena ondo ezautu zenuten? Ya koxkortuta. Gerra garaia're bai.
- Hemen pasa gendun hoixe gerra guzie.
- Bai, bai.
- Zer dezue goguan ordun? Nola enteatu ziñaten gerra hasi zala?
- Radiok esaten zun ta, gerra zala. Ta gerra hoi zer izan behar ote zun ez genekigun, ba. Eta, ba, hola. Gerra hasi zan, ta hasi zien etortzen zeak kotxek. Ordun milizianok hemen zien, zeak fusillen zeak atera muturrek leihotatik... Eta herri hau, hoi ikara baino zer da eskupetak dauzkeela zeak aterata. Eta ikara sartzea, hortaxe etorriko zien.
- Bai, Alegikok hittunan gehinak.
- Alegrin gelditzen hittunan, eta handik zabaldu herrita.
- Bai.
- Herri txikita.

2. Kartzelan sartzeko beldurra

- **Erref:** AME-002/004
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:04:01. **Bukatu:** 00:05:52

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra Zibilean, edozer gauzarengatik kartzelara sartzen zuten jendea. Osaba bat errekan arrantzan ari zelako sartu zuten kartzelan. Udaletxean bertan zegoen kartzela. Beldurra pasa zuten.

Transkripzioa

- Bai. Ta ordun, eozein gauzengatio kartzelan sartzen zittuen. Ni goatzen naiz osaba bat, ezer ez, hemengo errekatako zea zan. Ta geo, han ikusi zittuela errekatoko zea eitten, eta kartzela sartu zittuen.
- Zer egiten zuten errekatan?
- Errekan zea ai zien...
- Arrantzan?
- Arrantzan ai zien, eta han ai zielako, bai osaba beida zeon, baiño denak kartzelan sartu zittuen. Bai, hemen kartzela zeon lehen, oain ez.
- Hemen bertan zegoen? Herrin?
- Bai, hemen zeon aiuntamentun, bai, hor sartu zittuen, eta ikara bat. Bakizu ordun holako zeak eitten zien, ta ikara bat, zeatu ein gozittuela, hil ingo zittuela, ikaraz. Baiño... e hemen... Alegriko bat zeon, hemen, ta oso ezaune, eta bazeuken zea...
- Kontakton bat...
- Bai, eta harek esan zien ez, ezetz. Ezaunek zittun osaba ta, zea haundie zuen, eta hala ez zala zeatuko eta hairi zeatu zien.
- Ta hemen bertan jende asko eman zuen kartzela ordun? Herriko bertako jendia zan?
- Bai, baiño etzien... Haitxek, nik ez ditut besteik sentittu, nik kartzelan.

3. Herria bi bandotan banatu zen

- **Erref:** AME-002/005
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:05:52. **Bukatu:** 00:06:44

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Gerra garaian, herriko batzuk nazionalista izateagatik eraman egin zituzten. Herrian bi bandotako jendea zegoen: nazionalistak eta karlistak.

Transkripzioa

- Geo, beste batzuk e... eaman'e ein zittuen behera Joakin Galartza ta.
- Hoik zeñek eaman zittuen?
- Kanpoko zeak.
- Bueno kanpokok, baiño zein aldetakok? Gerran hasi zien...
- Bai, nazionalistak zielako eaman zizkiñenan, bai.
- Hoixe.
- Bai.
- Bakizue, herri txiki hautan ezer ez, ba, oponiok batzuk... euskaldunen aldekok, nazionalistak, eta, bestek, karlistak. Hoik zien, bi bando hoitxek.
- Eta ordun, noski, hasi zanen gauz hau, ba, ordun gorrik zien batzuk.
- Bai.

4. Soineko hori-gorria tapatuta eramaten zuen

- **Erref:** AME-002/007
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:07:58. **Bukatu:** 00:08:33

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Soineko horiak marrazki gorriak zituela konturatu zenean, Felik tapatu egiten zuen, zerbait esango ote zioten beldurrez.

Transkripzioa

- Ni goatzen naun soiñeko horie niñenan, eta hemen gorri, zea, dibujo batzuk zeuzken. Hoi zer... tapatuta ikaraz!
- Kolore espagnolak.
- Bai, tapatuta, bai haik, aizu! Bai, haik... dibujo haik tapatuta zeatiken... kontxo! Nazionalak eta... kontxo! Zeozer ingo ote ziteen, holako, holakoxe zeak burun pasatzen, bai.
- Ta hemen soldaduk eta pasatzen ta ikusi zenituen?
- Ez.
- Bai.
- Etorri al zien ba?
- Bai.
- Soldaduk, aber, esan zan.
- Bai, Alegrikok diela esan ziñenan, Alegrikok ziela, baiño etorri ta ni goatzen naun ne anai txikie kolgadoran zeon. Nik'e taberna neuken, guk'e... Ta hartu, hure jantzi ta segi.

5. Karlista sartu zen bederatzi urte zituela

- **Erref:** AME-002/012
- **Iraupena:** 0:01:51. **Hasi:** 00:16:14. **Bukatu:** 00:18:05

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Karlismoa, liberalismoa

Laburpena:

<p>Anak aita karlista zuen eta bera ere karlista egin zen. Alegiatik etorritako batek instrukzioak erakusten zizkien. Ana karlisten egoitzara joaten zen. Behin Orendainera eraman zituzten eta ondoren Alegiara zinea ikustera. Gustura ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Ze kontuak?
- Multek.
- Ta multak nola erabakitzen zuen zeini jarri? Holaxe. Aittu nazionalista zala, ta beai?
- Bai, hemendik eaman'e ein zittuen nazionalistak ziela ta.
- Eaman?
- Bai, Joakin Galartza, zea Joanin aitte.
- Zein Juanin?
- Joani, ne koiñatan aitte. Joanita, Joani! Harren aitte're eaman ziñenan, bai.
- Nazionalista zalako?
- Bai, nazionalista zalako, ta besteik ez dakit zein, holaxe eaman ein

zittuen.

- Bai, hemen zigortuk nazionalistak izan zien. Bestek zien nagusi, eta, ordun, nahi zuena eitten zuen.
- Baiño gu aitte ez hunan karlista. Gue aitte eze... ezta, ni sartu niñuñan karlista.
- Hi sartu al hintzenan?
- Beatzi urte edo ez zekiñet zer non, ta nunbaitte zatu behar ta... karlista.
- Ze umentzako eoten zian taldek ordun karlistanak eta hola?
- Bai. Ta ordun, geo muti koskorrak hemen ze...karlistak etortzen zien. Alegritik etortze hunan gizon bat, eta zea, instrukziok eakustea ta, aittonak eta denak e... zea... instrukziok eakustea.
- Instrukziok ze izaten zian ba?
- Zea, gerrako zea...
- Soldadu ikastea.
- A....
- Bai, aittonak eta dena! Bai.
- Han juten zian?
- Bai, bai juteko...
- Ta zu're hor ibili ziñan?
- E?
- Zuk'e hoiein zendun?
- Bai, guk ze joaten giñen karlistan, zea, lokalea ta umen zea, baten Orendañea eman giñuzen, eta, geo, handik Alegria, zea... e... zea ikustea... zine bat bota ziguen, eta hure ikustea. Ta gustoa.
- Txoatzen.
- Hoixe..
- [... kalistak zian].
- Gu ez, gu ez giñun han ibilli. Bildurrez ibilli giñunan beti. Gu bildurrez beti.

6. Falangekoak kalean agurtu behar

- **Erref:** AME-002/013
- **Iraupena:** 0:02:47. **Hasi:** 00:18:05. **Bukatu:** 00:20:52

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Mutil koskorrak Falangekoekin instrukzioa ikasten ibiltzen ziren. Falangekoak pasatzen zirenean, denek agurtu egin behar izaten zituzten. Errizino-olioa hartzearekin egiten zen mehatxu.

Transkripzioa

- Holaxe.
- Ta Amezketan jende asko... separaziok eta eongo zian ordun, familik eta anai bat alde bateko eta bestea besteko ta...
- Bai.
- Hoixe, hoixe.
- Baiño, puff, pasa.
- Bai.
- Ni goatzen naun zeakin, mutil koskorrak instrukziok eitten gora ta behera...
- Bai!
- Baiño falangekin. Meikun aittona txiki bat bahunan, hure hunan

falangekoa. Eta instrukziok eitten eta kanpotik etortzen hittunan, instrukziok eakustea, gora ta behera hor ibiltzen zien.

- Nundik etortzen zien?

- Hemen bizi zien.

- Ez dakit nondik.

- Bai.

- Haik bai, baiño haik beak ez hittunan ibiltzen eakusten, kanpotik etortzen hittunan falangistak.

- Baiño euskaldunek zien kanpotik etortzen zienak edo erderaz eitten zuen?

- Erderaz eitten ziñenan.

- Erderazkok, bai.

- Baiño deskuidon haik zean baldin bazien.... kaleen, gu hain zea eitten jarri behar gendun baztarren eh!

- Saludoa?

- Baai. Ta kantatu, haikin batea, bai.

- Herri guztiak ein behar izaten zun?

- Ez, tokatzen zitzaion hai. Konparazio, gu biok tokatzen al giñen, e? Ta hain zea ein behar gendun. Bai, beharko.

- Hoi ez zitzaiten nei eokittu.

- Baai.

- Ta zer kantatzen zan 'Cara al Sol'?

- Ba klaro, haina.

- Falangista.

- Falangistana, beharko. Goatzen naun... zu..., zea, hemen neska bat... ez dakit haserretu eingo giñen, edo, hure zea zan, alde batekoa eta ni bestekoa eta: "bai esango zionat eta azeiterezino hartu aziko diñe".

- Bai zea?

- Bai.

- Hoi zuri amenaza?

- Bai, hemengo neska batek, hangoa zan.

- Hangoa, Alegrikoa?

- Ez, falangekoa. Eta ordun, azeiterezino hartu azitzen zuen nonbait eta, "ikusikon e, ikusikon, esan eingo zionat, eta azeiterezino hartu beharkon".

- Baiño hoi zeñek hartu behar izaten zuen, zigor bezela jartzen zienak?

- Bai, bai. Bai.

7. Errazionamenduko janarien zain

• **Erref:** AME-002/014

• **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:22:20

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Gerraostean, udaletxean errazionamenduko janariak banatzen zituzten. Ilaran egoten ziren zer emango ote zien zain. Ez zuten beldurrik pasa baino belarriak jaitsita ibiltzen ziren.

Transkripzioa

- Ta geo, aiuntamentun, berriz, zea... zeatzen, ba, Jesus, ordun han zea ematen zuen, janarie ta...

- Non ematen zuen?

- Aiuntamentun.
- Razionamentukoa?
- Razionamnetukoa, zea, ta hantxe juten giñen, zai zer emango ziguen eta holaa.
- Baiño razionamentue dendata...
- E?
- Dendata, ez jendei partikular.
- Hor partitzen zieñeñan.
- Partikular? Hola jendeei?
- Bai.
- Dendata uste niñan, razionamentuk saltzeko ematen zuela.
- Ez hor ematen ziñenan, aiuntamentun azpin. Ta hantxe errenkan jarrita, hantxe eoten giñuzenan, bai, bai.
- Ta bildurrik edo izaten zan kalian, gehyo nazionalistan aldetik igual, baiño bildurra izaten zan?
- Ez.
- Bakoitzek ahal zuna ein, errendittu, eta segi aurrea, belarrik jeitsita hortxe.
- Ahal zan ixillena pasa ta.
- Pasa, pasa.

8. Karlistek emandako agiria autobusean joateko

- **Erref:** AME-002/015
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:20. **Bukatu:** 00:23:25

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Gerra Zibila zela-eta, autobusean joan behar zuten gizonek karlistek emandako agiri bat behar izaten zuten. Tranpak ere egiten zituzten.

Transkripzioa

- Ta geo, ordun, zea batea ematen hunan, autobusen eta jun behar zuen gizonak edo zeak, ba, zea
- Txartelan bat.
- Bai.
- Agirie.
- Agirie zeana... karlistana
- A bai?
- Karlistana usteñet bai.
- Eman behar izaten zuen autobusen ibiltzeko?
- Bai, bai. Ta ni goatzen naun, zea, botoiak da, zea ein koloretan, ein ta hala. Nire osaba're zea txoferra zan, autobusekin ibiltzen zan, ta mordoxka bat einda eukitzen nun.
- Ez zekanai jartzeko?
- E?
- Ez zekanak erabili ahal izateko?
- Bai, bai, bai. Holakoxe zeak, ixtorik.

9. Erretorea kartzelan sartu zuten

- **Erref:** AME-002/025
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:40:34. **Bukatu:** 00:43:06

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Elizako erretoreak gerra hasieran alde egin zuen karlista zelako; haren etxeari sua emango ziotela mehatxu egin ziotenean, itzuli egin behar izan zuen. Orduan kartzelan sartu zuten. Komunio Handiko egunean, Larraitzera txangoa egiteko asmoa zuten eta ezin izan zuten erretorea kartzelan zegoelako.

10. Dotrina euskaraz ikasten zuten

- **Erref:** AME-002/026
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:43:06. **Bukatu:** 00:45:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

Laburpena:

Garai haietan, hiru apaiza ziren herrian; eta, bat kartzelan sartu zutenean, besteak eman zien komunioa. Dotrina jakin behar zen komunioa egiteko. Dotrinako ikasteko txartelak euskaraz izaten zen.

11. Janariak gordeta

- **Erref:** AME-002/029
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:50:19. **Bukatu:** 00:51:17

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Dendan freskera zeukaten, bodega antzekoa, janariak gordeta edukitzeko. Kanpotik ekarritako janariak ezkutatu egiten ziren.

12. Gerra ondorengo janariak

- **Erref:** AME-002/030
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:51:17. **Bukatu:** 00:54:17

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Postrea zen luxu handiena, esne-arrautza edo horrelakoren bat. Irina erosi behar izaten zuten. Babarrunak asko jaten zituzten, txerria ere bai, nahiz eta kalean bizi. Txorizoak ere etxean egiten zituzten. Meriendako txokolatea izaten zuten.

13. San Bartolomeak Amezketan

- **Erref:** AME-002/032
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:55:04. **Bukatu:** 00:57:08

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Amezketako festak San Bartolomeak izaten ziren. Gerra denboran ez zen festarik izan. Ttun-ttun jotzailea Alegiatik etortzen zen. Musika plazan izaten zen eta dantzan ibiltzen ziren.

14. Aprobetxatutako ehunekin soinekoak egiten zituzten

- **Erref:** AME-002/038
- **Iraupena:** 0:03:07. **Hasi:** 01:10:25. **Bukatu:** 01:13:32

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Trapuz egindako manta antzeko batzuk erabiltzen zituzten oheak tapatzeko, "koltxilak" deitzen ziren. Jostunek arropak aprobetxatuz beste batzuk egiten zituzten. Maindireak tindatuta ere soinekoak egiten ziren. Bi soineko izaten ziren gutxienez, bat astegunerako eta bestea jaiegunetarako. San Bartolometan soineko berria estreinatzen zuten.

15. Gabonetako abestiak eta ohiturak

- **Erref:** AME-002/041
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 01:19:25. **Bukatu:** 01:22:30

Gaia(k):

- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

Gabonetako abestiak gogoan dituzte oraindik. Orduan ez zegoen Olentzerorik. Erregeei zapata jartzen zioten. Mazapanezko aingirak jaten zituzten.

16. Igande arratsaldeak

- **Erref:** AME-002/044
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:24:55. **Bukatu:** 01:27:22

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Dantza

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Igande arratsaldero, "bezperetatik" atera ondoren dantza izaten zen. Baserritakoak azkar bueltatu behar izaten ziren eta mutilak nesken atzetik joaten ziren.

17. Etxeko argia eta ura

- **Erref:** AME-002/051
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:37:54. **Bukatu:** 01:40:18

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Etxean ez dute beti ezagutu izan ura. Errekatik baldetan ekartzen zuten ura. Argia berriz errotatik etortzen zitzaien, iluntzen zenean pizten zen. Argia joaten zenean petrolio-kriseilua erabiltzen zuten.

18. Donostiara urtean behin

- **Erref:** AME-002/052
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 01:40:18. **Bukatu:** 01:43:45

Gaia(k):

- Aisia » Kultura
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Telefonoa udaletxean zegoen. Urtean behin Donostiara joaten ziren. Egun batean trena galdu zutelako Donostiako lehengusuen etxean lo egitea pentsatu zuten eta udaletxeko telefonora deitu zuten. Gustura egon zirenez handik aurrera urtero egiteko ohitura hartu zuten. Igeldora eta Akuariumera ere joaten ziren. Barraketan ere ibiltzen ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com